

## ¿Zer esan nahi du “negoiazio kolektiboa zentralizatzea”?

*Azken lan-erreformek UGT eta CCOO gure lan baldintzak ezartzea Euskal Herritik kanpo lortu nahi dute.*

Historian agerian geratzen den, euskal gehiengo sindikalak euste-horma eraginkorra izan da Euskal Herriko lan harremanen esparrua Espainiakoaren beste azpisistema bat izan ez dadin. Euskal Autonomia Erkidegoko bizi-maila beste erkidegoetakoa baino altuagoa da eta hori gure hitzarmenetan ere aintzat hartu behar dela irmoki uste dugu.

Pasa den otsailean Espainiako Gobernuak egindako erreforma – eta horren barruan negoziazio kolektiboarena – benetako mugarrria da lan munduan eta ELAK ordezkatzeko duen sindikalismorako. Eszenatoki berri baten aurrean gaude, eta Zapaterok egindakoari jarraipena ematen dio – zeinek hitzarmen kolektiboen zentralizatzearen bidea ireki zuela hemen negoziatzen dugun ala ez erabakitzeko eskubidea kenduz – **lan baldintzak txirotzeko asmoz.**

Erreforma biek, azkenean, negoziazio kolektiboaren oinarria lehertu dute orain arte ezagutu dugun moduan. Zentralizazioaren eraginak dagoeneko sufritzen ari gara. Patronalak eta bi Espainiako Konfederazio Sindikal handienak ondo aprobetxatzen ari dira esparru berriak emandako aukerak. Horren froga emateko:

- o Convenio Colectivo Estatal de Perfumería y Afines. (BOE 2012.ko Urriaren 8an).
- o Convenio Colectivo General de Centros y Servicios de Atención a Personas con Discapacidad. (BOE 2012.ko Urriaren 9an).
- o Convenio Colectivo Estatal del Corcho. (2012.ko Irailaren 21ean).
- o Convenio Colectivo Estatal de Administraciones de Loterías. (BOE 2012.ko Abuztuaren 8an).
- o Convenio Colectivo Estatal de Contact Center (lehenago Telemarketing). (BOE 2012.ko Uztailaren 27an).
- o Convenio colectivo estatal para el comercio de mayoristas distribuidores de especialidades y productos farmacéuticos.
- o Preacuerdo de la Comisión Técnica de la Comisión Negociadora del Convenio colectivo estatal del sector de industrias cárnicas.

ELAren ustez, argi dago sindikalizatuta ez dauden lekuetan (langile afiliatuak, mobilizatuta eta egoeraz ohartzen direnak, eta sindikatu-atal boteretsuekin) etorkizunean ez direla lan-baldintza duinak egongo. Beste era batean esanda: erreforma honen eragin txarrak muga daitezke eta are gehiago, eragotzi daitezke, baina horretarako eraso orokorrari oinarritik erantzun behar diogu, botere sindikalaren baliabideak gehituz. Egutegi erreibindikatioak, aliantzak, elkar-lana, baliabide materialak eta sindikatuaren militantzia behar dugu erantzuna emateko.

## 355 falta dira hitzarmen barik geratzeko

*Probintziako edo enpresako hitzarmen baten sinatzea da bide bakarra azken 35 urtean eskubide eta erosahalmen galerarik handiena ekiditeko.*

Pasa den 2012. abenduaren 15ean hurrengo 2013.ko Abenduan bukatuko duen aatzerako kontaktetan sartu ginen ofizialki. Data hori gure etorkizunak zehaztuko du l lan baldintzei dagokienez.

EAzken langileen asanbladan, Abenduaren 11an eta 12an ospatutakoa Bilbon eta ZZamudion, erreformak negoziazio kolektiboari nola eragiten dion azaldu genizuen, eeta gure hitzarmena negoziatzeko orduan egon daitezkeen baldintzak.

DELAko sindikatu-ataletik 2013an gure eskubideak defendatzeko egingo diren eekintza guztietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Gure aldetik, negoziazioak nnola garatzen diren eta plataforma bakoitzean zer planteatzen den kontatuko ddizuegu.

## Laburrak

• **Bizkaiko gasolindegia.** Gatazka: Bizkaiko gasolindegietako 400 langileek probintziako hitzarmena eskatzen dute erreformaren eraginak saihesteko. Uztailaren 7an baino lehen berriztatzen ez bada, langileak estatuko itunaren menpe egongo lirarteke, une honetan ere negoziazioaren prozesuan dagoena. Hori ere berriztatzen ez bada, aukera bakarra Langileen Estatutua litzateke. **Zaharrak berri, ezta?**

• **Heziketa.** ELAko azken aldizkarian esan genizuen, Lan Ikuskaritzan salaketa jarri da. Helburua, GFI Norte-k kurtsuak argitaratu eta langile guztiontzako aukerak egotea. Fundación Tripartita-tik ere 2012ko heziketa-planaren dokumentazioa eskatu diete, eta aldi berean legeak betetzen ez badu subentzioak gal ditzakeela ohartarazi dio.

• **Informatika “Capgemini-ren kasua”.** Enpresak, mugagabeko greba hasi baino sei ordu lehenago (Bartzelonan eta Zaragozan), eraso guztiak bertan behera uzten ditu. Borrokaren eredu bat, eta nola langileen batasunak eta mobilizazioak egin diezaioke aurre edozein enpresaren erasori.

• **CAF** (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) bere Beasaingo lantegirako mahai gainean jarri zuen EREa (869 langile) bertan behera utzi du. Enpresak hurrengo urtean aurreikusten du lan-kargaren falta konpondu nahi zuen era horretan, baina langilegoak ez dio onartu.